

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Aurreikusita dut udalerritik kanpo egotea abuztuaren 29tik irailaren 1a arte.

Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44.1, 44.2 eta 47. artikuluetan xedatutakoa betez, eta ezingo ditudanez bete nire karguaren eginkizunak kanpoan egongo naizelako,

Honen bitartez,

Ebazten dut

Lehenengoa: nire eginkizun guztiak lehen alkateorde David Muro Pesori eskuordetzea.

Bigarrena: ebazpen hau interesa dutenei jakinaraztea, eta udalbatzari horren berri ematea, egiten den lehenengo ohiko osoko bilkuran.

Hirugarrena: dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Lapuebla de Labarca, 2019ko abuztuaren 28a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ